

Ieltsinen autogolpea

Errusian



Indar Armatuak Parlamentua inguratuta larritu egin da tentsio giroa Moskun

Legebiltzarreko defenditzaileek armak utz ditzaten beharrezko neurriak agindu ditu Ieltsinek

Diputatuek eztabaidan jarraitzen zuten bitartean, Boris Ieltsin Errusiako lehendakariak Parlamentua defenditzen ari direnek armak utz ditzaten beharrezko neurriak hartzeko agindua eman zien atzo Defentsa eta Barne Ministerioko arduradunei. Giroa larri goritu da Moskun.

MOSKU

Ostegunean Estatu Independenteen Komunitatearen (EIK) defentsa egoitzak izandako erasoak asko berotu du Moskun bizi den tentsio giroa. Eraso horretan polizia bat eta emakume bat hil eta bi soldadu zauritu ziren.

Eraso horrek bultzatu du Parlamentuaren defenditzaileei armak kentzeari buruz Ieltsinek hartutako azken erabakia, erasoagatik atxilotutakoek aitortu dutenez, Parlamentuaren defenditzaileetako batzuk baitziren eurak ere. Horretaz gain, Parlamentuaren egoitzaren ingurura hainbat polizia, segurtasun indar eta anbulantzia hurbildu dira, eta hiritarren artean tentsioa areagotu egin da.

Boris Ieltsinek Parlamentua defenditzen dutenei armak kentzeko agindua eman zien atzo Defentsa eta Barne Ministerioei. Kremingo prentsa zerbitzuak adierazi zuenez, «Defentsa eta Barne Ministerioek beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte Parlamentuaren defenditzaileei lehenbailehen armak kentzeko».

GARBIKETA Agindu honi indar jarraiki, Barne Ministerioko

poliziaz beteriko hainbat kamioi eta beste hainbat anbulantzia hurbildu ziren atzo goizean Parlamentuko egoitzara, bertan Ieltsinek deseginiko Diputatuen Kongresuak bildurik jarraitzen zuela. Iuri Luzhkov Moskuko alkateak Etxe Zuria (Errusiako Parlamentuaren egoitza) eta inguruak arrisku handiko lekutzat jo zituen, bertan bizi den tentsio giroa dela eta. Dena den, Viktor Txernomirdin errusiar Lehen ministroak a' o esan zuenez, «neurriak hartu behar dira, baina ez indarrezkoak». Ieltsinek Txernomirdinek esandakoa baieztatu zuen, Parlamentua ez dutela indarrez hartuko adierazi baitzuen.

Sobiet Goreneko Segurtasun Zerbitzua —1.500 gizon armatuk



Parlamentuko egoitzan pasa zuten gaua diputatuek.

osatzen dute— Defentsa Ministerioaren aginduetara jarri zuen atzo gainera Ieltsinek. Aldaketa hau atzo goizean Kremingo buruak segurtasun organuei emandako «garbiketa» aginduaren ostean jazo zen. Moskun gero eta goriagoa den giroa lehertu ez dadin eta mugimendu guztiak kontrolpean izateko asmotan, Ieltsinek Errusiako Indar Armatuetaiko goi buruzagien artean, segur-

tasun organuetan (KGB ohia) eta mugak zaintzen dituzten goardien artean «garbiketa egitea» ere agindu zuen atzo goizean.

Herenegun Boris Ieltsinen aurkako indarrek burututako erasoaren ostean gauzak larri okertu zitezkeela aurikusita hartu zuen atzo lehendakariak segurtasun indar guztietan bere konfiantzazko agintariak jartzeko erabakia. Bezperan baita ere,

Salbazioarako Fronte Nazional-eko buruzagia den Albert Makxov jeneral erretiratuak Larrialdiko Batzordearen komunikazio zentroa indarrez hartzen saiatu zen.

PARLAMENTUA EZTABAIDAN BITARTEAN

Boris Ieltsinek politikoki garapena lortu duela adierazi zuen atzo Vladimir Xumeiko errusiar Lehen ministroak, nahiz eta egoerak larria izaten jarraitzen duela onartu zuen. Bitartean, errusiar Parlamentuko diputatuek Ieltsinek ezarritako errejimen presidentzialistari aurre egiten jarraituko diotela adierazi zuten.

Parlamentuan bilduta jarraitu zuen Diputatuen Kongresuak Ieltsinek ezarritako errejimen presidentzialistaren aurrean ez dutela amore emango adierazi zuen atzo. Herenegun, gainera, Ieltsini botere guztiak kentzea eta botere horiek Aleksandr Ruskoi jarduneko presidente paraleloaren esku uztea berretsi zuen. Azken honek «traidoretzat» jo zuen Ieltsin.

Bestalde, Ruslan Khasbulatov Botere Legegileko presidenteak adierazi zuenez, «Ieltsinen errejimenaren akaberarekin, egungo egoera arraroari irtenbide bat ireki zaio».

Makroparlamentuak estatu kolpea aurrera eramane zutenen —Ieltsinen aurka alegia— aurkako neurriak hartzeko eskatu zien Fiskaltza Nagusiari eta Defentsa eta Segurtasun Ministerioei, Ieltsinek agindutakoari aurre egin asmotan.

Khazbulatov:
«Kolpistena izango da isuritako odolaren erantzukizuna»

MOSKU

Ruslan Khazbulatov Ieltsinek joan den asteartean desegin zuen Parlamentuko lehendakariak adierazpen gogorak egin zituen atzo Kremingo buruzagien aurka, hauek egun Errusiak bizi duen egoera lehertzeak sortuko lukeen egoeraren erantzuleak direla esanez. Parlamentuko buruaren arabera, egoera honek «biktimak eragingo ditu», baina, joan den asteartean «Estatu kolpea burutu zutenen bizkarren gainera eroriko da isuritako odolaren erantzukizun osoa».

Errusiako lehendakariak desegin arren atzo eztabaidan bilduta egon zen Errusako X. Diputatuen Kongresuan mintzatu zen Khazbulatov. «Agian biktimak izango dira, baina baztertu egiten ditugu odol isurketaren erantzukizuna gaineratu nahi izan ditugun adierazpenak», azpimarratu zuen herenegun gauean Estatu Independenteen Komunitateko (EIK) defentsa egoitzaren aurka egindako erasoaren ostean sortutako erreakzioei erantzun nahian.

Aleksandr Ruskoi Parlamentuak izendatutako «jarduneko lehendakari» paraleloak hauteskunde parlamentario eta presidentzialak aurreratzeko egindako proposamenari buruz bestalde, itxarotearen alde agertu zen Khazbulatov «lehenik ordenu konstituzionala berrezarri» egin behar dela arrazoituta.

EUSKARAZ

A R A B A

ERRIOXA

- OION Sorkunde kalea, 4 - (941) 11 00 87
- BIASTERI Berberana, z/g
- BIANA Ikastolan
- LA PUEBLA Ikastolan
- KANPEZUKO Euskaltegia Udaletxean

GASTEIZ

- GASTEIZ Euskaltegia Errege Katolikoak 15-C - 28 89 22
- PINTO Euskaltegia. Pintoreria, 74 - 28 97 80
- ZALDIARAN Euskaltegia Zaldian Plaza, 18 - 24 49 05

N A F A R R O A

IRUÑERRIA

- ARTURO KANPION Komedias, 14.4. 22 22 46
- ATARRABIA-BURLATA-HUARTE Nagusia, 67. 13 09 98
- BARANAIN Sahats Euskaltegia. 17 68 68

MATRIKULA ZAITEZ!

Jantziago euskaldunago

ikas eta ari

● ERMITAGAÑA-MENDEBALDEA Euskalt. B. Carranza, 52 - 17 68 68

● IPES San Migel, 8-2. 22 59 91

BORTZIRIAK

- (Arantz, Igantzi Etxalar, Zugarramurdi, Sara)
- BERA Herriko Etxea. 63 11 05
- LESAKA 63 77 96
- MALERREKA Elgorriaga, Doneztebe, Sunbilla. 45 - 15 55

LEITZALDEA (Leitza-Goizueta)

● LEITZA Udaletxea. 61 07 76

LARRAUN

● LEKUNBERRI Udaletxea. 50 42 07

BASABURUA - IMOTZ

● ETXALEKU Udaletxea. 50 30 67

● JAUNSATZ Udaletxea. 50 31 03

BARNETEGIAK

Urriaren 25ean hasiko dira

● MATXINBELTZENEA (Lesaka) .. 63 77 96

● MENDAUR (Doneztebe) 45 15 55

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

GIZARTE-GRADUATUEN UNIBERTSITATE-ESKOLA

Gizarte-Graduatuen Unibertsitate-Eskolako ikasle guztiei egiten zaie deia 93/94 akademi ikasturtearen aurkezpen ofizialerako.

- Eguna: 1993.eko urriaren 1ean.
- Lehenengo ikastaroa: 16etan.
- Bigarren ikastaroa: 9etan.
- Hirugarren ikastaroa: 12etan.

Leioan, 1993.eko irailaren 23an. ZUZENDARIA